



Argazkiak: © Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa

Ariketa koaderno

Maila: DBH

IZEN ABIZENAK:

IKASTETXEA:

HERRIA:

DATA:

Foru Plaza, 1
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
Tlf. +34 94 627 0213
www.museodelapaz.org
E-maila: hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika

AURKIBIDEA

0) Sarrera.....	2
1) Kokapena.....	3
2) Bakea.....	3-6
3) Gernikako bonbardaketa.....	7-9
4) <i>Guernica</i> eta Picasso.....	10
5) Giza Eskubideak.....	10
6) Testigantzak.....	11
7) Webgrafia.....	11

SINBOLOAK



Aztertzeko



Ariketa



Audiobisuala

Dokumentu hau eta beste dokumentu interesgarriak deskargatzeko:

www.museodelapaz.org

issuu.com/museodelapazdegernika


Eskerrak:

Gernikako Bakearen Museoan obra hau egiten eta hobetzen lagundu duten guztiei.

Argitaratzailea



Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa
Fundación Museo De La Paz De Gernika



Gernika-Lumo, 2019

0) SARRERA


Gernikako Bakearen Museoak ez du gerrari buruzko istorioak kontatzen duen beste narratzaile bat izan nahi. Aitzitik, bakean sinestera, bakea bilatzera, bakea behatzera eta erkatzera animatzen duen gunea da. Museo tematiko honek bakearen kultura zabaldu nahi du, historiaren, sormenaren eta hunkiberatasunaren elkarrekintzatik sortutako sentazioak eta ideiak transmitituz.

Gernikako Bakearen Museoak bakeari buruzko alderdi unibertsalak alderatzen eta proposatzen ditu. Museoan, bake ezaren ondorioak aurki ditzakezu –giza eskubideen galera edo urratze bezala ulertuta-, eta beste askoren artean, adiskidetzeko prozesuetan apustu egiten eta garatzeko eta bultzatzeko proposamenak eman ditu edota sormenezko konponbide ezbiolentoak bilatu ere.

Museoak gatazka gizakien arteko interakzioan ematen den prozesu natural bat da bezala ulertzen du eta horrela zabaldu nahi du. Ohikoa da eguneroko bizimoduan gure iritziak, beharrak eta interesak egiaztatuak izatea. Gatazkak erantzuteko edo aurre egiteko bi modu oso desberdin aurkitu eta aztertu ahal izango dituzu; bata indarkeriazkoa eta bestea sormenezkoa eta ezbiolentoa. Aukeratzen dena indarkeria denean, erantzun honek sortzen dituen ondorio negatiboak erakusten dizkizugu. Erantzun ezbiolento eta sormenezkoa aztertzen baduzu, bakezko gizon eta emakumeek, bidezkoagoak diren gizarteak sortzeko asmoz, orain arte erabili dituzten eta gaur egun erabiltzen dituzten tresna eta formulak aurkitu ahal izango dituzu.

Gernikako Bakearen Museoak sentitzeko eta bizitzeko museoa izan nahi du; hau da, hunkiberatasunaren eta enpatiaren eskutik, adiskidetzeko bidea zabal diezagun tokia eta denon artean eta egunerokotasunean bakeari forma eman diezaiokegula pentsatzeko lekua.

*Oroitzapenerako museoa,
etorkizunerako museoa.*



**Bakea ez da diruarekin
erosten!**

Haurrak eskolan, bakea etxean.

**Osasuna eta bakea,
zorion betea.**

**Gerra nahi duenak
bakerik ez.**

 Seguru behin baino gehiagotan entzun edo erabili dituzula esamolde hauek. Irakurri dituzun esamolde horiek erabiliz, taula honetako esaldiak osa itzazu.

-Egoera onean egon eta gainera bizimodu gustukoa izanez gero, ez da besterik behar.

-Ahaleginik egin gabe bakea nahi dugula esaten dugunean, hau esaten dugu:

-Haurrekin kokoteraino gaudenean zera esaten dugu:

-Estu eta larri zaude joateko; gero noiz bueltatuko ametsetan.

 Bake hitza daramaten esamolde gehiago aurki eta idatz itzazu.

Ikusten duzunez Bake
hitzak esanahi asko ditu.
Museoan agertzen direnak
ikusiko ditugu oraingoan.

 Bide zuri honetatik jarraituko dugu. Behealdean zenbait esaldi agertzen dira baina ezetz asmatu zein den esaldi ezkutua? Horra hor pistatxo bat: letra eta hizki kopurua kontutan izan; a=, b= d=.

[illegible]

Amado Nervo idazle
mexikarrak esaldi hau esan zuen:

Eguneroko ogia bezain beharrezkoa den zerbait dago, eguneroko bakea; bake hau gabe, ogi hori mikatza litzateke.

 Mikatza da benetan ezer jateko ez duzunean. Zure ustez, gizaki bat egoki bizitzeko, zeintzuk dira bere gutxieneko beharrizanak?

Janaria,

 Aurrera egin eta bide zuriko azken panelera joango gara. Zer dute amankomunean argazkietan agertzen diren pertsonek?.....

.....

.....

Badakizu nortzuk diren?

1)

2).....

3).....

4)

 Bide zuritik gela urdinera pasatzen gara orain. Zer sentiarazten dizute dauden argazkiek? Azpimarratu bizpahiru hitz. Egokiagoa den hitzen bat aurkitzen baduzu, idatz ezazu.

Poztasuna, tristezia, lasaitasuna, urduritasuna, jelskeria, bekaizkeria, maitasuna, etorkizuna, familia, gabezia, natura, bizia, pobrezia, zahartzaroa.

.....

.....

.....

Lehen hieroglifikoa irakurtzeko gai izan bazara, hurrengo hau ere oso erraz irakurriko duzu. Zein argazkiren azpian agertzen da?.....

ଡିଜିଟାଲ ଡିଭିଜନ, ଗୁରୁତ୍ୱପୂର୍ଣ୍ଣ ସେବା ପ୍ରଦାନ କରିବା ପାଇଁ
 ଗ୍ରହଣ କରାଯାଇଥିବା ପଦକ୍ଷେପ ଓ ଫଳାଫଳ

 Inoiz entzun duzu Bake Positiboa eta Bake Negatiboa existitzen direnik? Bakea bakea dela esango genuke guk, baina jakintsuek bake mota desberdinak bereizten dituzte. Baietz jakin zein diren bake positiboaren (BP) eta zein bake negatiboaren (BN) ezaugarriak!!! Bete taulatxoak BP edo BN idatziz.

☐ Bakeak bizitzaren dimentsio guztietan eragina du: dimentsio interpertsonalean, talde artekoetan, nazionalean, nazioartekoan.

☐ Gerra arazorik ez izatea.

☐ Kanpokoagandik defendatzea.

☐ Egunero eraikitzen dugun prozesua da. Prozesu horretan gerra, gosea, bazterketa,... bezalako egoerarik ez dago.

☐ Justizia soziala bilatzea.



 Orain gogoan hartu zure gurasoekin, neba-arrebekin edo eskola-kideekin haserretu zaren momenturen bat. Momentu horietan gertatzen diren interes, behar edo iritzi desberdinek (gatazka) indarkeriazko erantzuna ematera bultzatzen zaitzake.

Behatu zeure burua: Nola erantzuten duzu hau gertatzen denean? Nola ikusten dituzu beste pertsona edo pertsonak? Gatazka erantzuteko indarkeria erabiltzen baduzu, sarritan beste pertsonari min egiten diozu, eta izan daiteke zeu ere zauritzea, hau da, zuen arteko harremana minduta edo hondatuta gertatzen da. Galdutako konfiantza berreskuratzeko martxan jartzen dugun prozesuari adiskidetzeari deritzaio.

 Zer egin duzu edo zein tresna erabiltzen duzu adiskidetzeko edo adiskidetze prozesua martxan jartzeko?

Hitz egin,.....
.....

Orain zauden gelako beira-arasan aipatu berri dituzun tresnak aurki itzazu eta zuk proposatu ez dituzunak baina interesgarriak iruditzen zaizkizunak gehitu:.....

.....
.....
.....

3) GERNIKAKO BONBARDAKETA

🕒 Hurrengo gelaren barruan irakurtzeko

Denboraren makina izango bagenu, gure aitona-amonak gure adinekoak ziren garaira joango ginateke. Irudimena lanean ipiniko dugu. Horretarako, lehenengo eta behin, egongelara sartuko gara eta lurrean eserita gelako txoko eta gauza guztiak ondo miatuko ditugu: hormako erlojua, ezkontza argazkia, irratia, egurrezko sabaia, abar-ketak,... Ondoren Begoña adi-adi entzungo dugu.

📖 Begoñaren historia entzun duzu. Zer sentitu duzu egongelan zeundenean?

.....

.....

Eta kanpora atera zarenean eta lurzorua ikusi duzunean?

.....

.....

📅 Ardatz kronologiko hau betetzen joan zaitez 2. errepublika eta Espainiako Gerra Zibilaren informazioarekin. (Ez da beharrezkoa guztiak betetzea.)

1931

1932

1933

1934

1935

1936

1937

1938

1939

🔑 Zer dela eta zer dela: Euskal foruen eta euskal nortasunaren sinboloa da. Gernikan dago eta naturarekin lotuta dago. Zer da?



“Bando bakoitzaren proiektu politikoan ez zen aurri-kusten aurkariarekin batera bizi beharra, aitzitik, bestea besterik gabe baztertzea zen xedea. Hala, bortizkeria metodo bihurtu zen eta sistema geroz eta hauskorrago.”



🔑 Nork esan zuen esaldi hau?.....

🔑 Dakizunez Espainiako Gerra Zibilaz ari zen. Zein bi bandok borrokatu zuten elkarren kontra?

a).....

b).....

🔑 Noiz hasi eta amaitu zen Espainiako Gerra Zibila?

.....

🔑 Gernikako bonbardaketaz zer ikasi duzun konprobatu ahal izango duzu test honen bidez. Esaldi bakoitza egia (E) ala gezurra (G) den esan. Gezurra baldin bada, zuzendu.

1) Gernika astearte batean bonbardatu zuten, azoka eguna baitzen.

2) Alemaniarrak eta italiarrak ziren Gernika bonbardatu zuten abioiak, eta Francoren agindupean egin zuten.

3) 500 bonba jaurti zituzten.

4) Bonbak apurtzaileak eta su eragileak izan ziren.

5) Herriaren % 50a guztiz suntsituta gelditu zen.

6) Frontoia, Batzar Etxea eta udaletxea suntsitu gabe gelditu ziren.

7) Bonbardaketa gertatu eta 10. egunera Gernika tropa matxinatuek okupatu zuen.

8) Lehen abioiak goizeko 9etan heldu ziren.

9) Gernika, 1937ko apirilaren 26an bonbardatu zuten.

10) Gernikan ez zegoen babeslekurik.

11) Gernikara etorritako tropa matxinatuak nazionalitate desberdinetako soldaduz osatuta zegoen: espainiarrak, alemaniarrak, italiarrak eta marokotarrak.

12) 4.000 pertsona inguru hil ziren bonbardaketaren ondorioz.

🕒 Nor da nor? Begiratu erakusketako paneletan eta identifikatu pertsonaia hauek: Von Richtofen, Franco Jenerala, Mola Jenerala eta Agirre Lehendakaria.



📅 Gernikan gertatu zenaren hedapena eztabaida sakonen iturria izan zen hasiera hasieratik. Irakurri egunkarietan dioena eta bete taula.

EGUNA	EGUNKARIA	LERROBURUA
1937/.../...		
1937/.../...		
1937/.../...		
1937/.../...		
1937/.../...		
1937/.../...		
1937/.../...		

🖋️ Orain ondorioa atera:

1. Interpretazioa:

2. Interpretazioa:

Gaur egungo informazio medioetan horrelako egoerarik ematen al da? Aipatu adibideak.

.....

🖋️ Gela honetan eseri eta bideoa ikus ezazu. Bideoa eta gela aztertu ostean erantzun galdera hauek:

1) Zein da gai nagusia?

.....

2) Zergatik etorri zen Alemaniako enbaxadorea Gernikara?

.....

3) Ahaztu gabe, mendekurik hartu gabe esaldia irakurri duzu. Zer esan nahi du?

.....

4) Adiskidetze prozesu asko eman dira munduan. Non?

.....

5) Zer da zuretzat adiskidetzea?

.....

.....

🖋️ Hitz hauetatik zeintzuk erabiliko zenituzke benetako adiskidetze prozesu batean?

Onartzea

Elkarlanean aritzea

Jeloskor izatea

Entzutea

Biraoka ibiltzea

Isiltzea

Berreraikitzea

Errespetatzea

4) GUERNICA ETA PICASSO

 **Test labur bat egin behar duzu. Esaldi bakoitza egia (E) ala gezurra (G) den esan. Gezurra baldin bada, zuzendu.**

Guernica margolana Picassok margotu zuen.	
Picassok errepublikaren alde zegoela adierazi zuen margolan honen bitartez.	
Aurkeztu bezain laster, harrera oso ona izan zuen lan honek.	
1939an amaitu zuen <i>Guernica</i> margolana.	

 Ezagutzen al zenuen
Picasso? Eta bere obra?

.....
.....

 *Guernica* begiratzen
duzunean, zein irudi da
indar eta zirrara gehien
sortzen dizuna.

.....
.....

5) GIZA ESKUBIDEAK

 Zein hiru Giza Eskubide
nabarmentzen dira gela
honetan?

1-.....
2-.....
3-.....

 Zergatik errespetatu behar
ditugu Giza Eskubideak?

.....
.....
.....

6) TESTIGANTZAK



🔗 Museoko azken gela da hau. Testigantza batzuk entzun ondoren, zein tresna edo lanabes erabili behar dela uste duzu horrelako egoerak berriz gerta ez daitezen?

.....

.....

Zein sentsazioekin ateratzen zara Museotik?

.....

.....

Museoa bere osotasunean azaltzeko zein hitz erabiliko zenuke?

.....

.....

7) WEBGRAFIA

Gai hauetan sakondu nahi baduzu, sartu hemen:

-www.museodelapaz.org

-issuu.com/museodelapazdegernika

-www.youtube.com/museodelapaz